

# Greziar eta erromatar mitologiaren hastapenak, labur-labur

Jesús Bartolomé Gómez  
EHU

Gidor Bilbao Telletxea  
EHU

Greziar eta erromatar mitologia osoaren ikuspegi orokor baina laburra eskaintzeko ahalegina da lan hau. Soilik greziar jainko-jainkosak eta hauen pareko erromatarrek azaltzen dituen mitologia aurkeztu beharrean, mito kontzeptu zabalago bat eskaini nahi da, bereziki erromatar mitologian gure artean ezezagunagoak diren kontakizunak ere sartuz.

In this work an overall view of the Greek and Roman mythologies is offered, which is both brief and comprehensive. Fleeing the idea of a mythology concerned only with the Greek gods/godesses and their Roman counterparts, here a wider concept of myth is shown as is the case specially with the explanation of the Roman myth, which includes narrations mostly unknown among us.

## I. Sarrera

Herri edo kultura baten mito multzoa dela mitologia esan liteke<sup>0</sup>. Baina badirudi zerbait zehatzagoa eta aldi berean osoagoa behar dela. Inoren bi definizio saio ekarriko ditugu hona, gu horiek eztabaidatzen hasi gabe<sup>1</sup>. Lehenengoa Buxtonena da (1994: 15):

Greziar mitoa *kontakizun* bat da [hitzezko edo ikusmenezko adierazmoldeei dagokienean era batera edo bestera ulertuta], jainkoen eta heroien egitandiei eta hauek hilkorrekin dituzten harremanei buruzkoa, antzinako greziar munduan *tradizio* gisa adierazia, eta gizarte talde batentzat edo batzuentzat *esanahi kolektiboa* duena.

Nahiago dugu bigarrena, García Gualena (cf. Gallardo López 1995: 19), zabalagoa delako, greziar mitoetara mugatu gabea:

Mitoezko kontakizun tradizional bat da, ohiz kanpoko pertsonaien ekintza gogoangarri eta eredugarriak kontatzen dituen urruneko garai ospetsu batean kokaturik.

## II. Greziar mitologia

Greziar mitologian hiru multzo bereiz daitezke.

Lehenengoan etorkiei buruzko kontakizunak bil daitezke: kosmos edo unibertsoaren etorkia, jainko antropomorfikoen etorkia eta azkenik gizon eta heroien etorkia.

Bigarren sail batean jainko-jainkosei buruzko kontakizunak sartzen dira. Ezagunenak Olinpoko jainkoak izan litezke (Zeus, Poseidon, Atenea...), baina hauekin batera azter daitezke infernuko jainkoak (Hades, Persefone...) eta "jainko txikiak" izenarekin biltzen den multzo handi bat (ur, mendi edo oihanetako jainkoak, kontzeptu abstraktoak, jainko-taldeak...).

Azkenik ez jainko ez gizon ez diren heroi edo erdijainkoei buruzko kontakizunak daude (Herakles, Ulises, Akiles...).

### II.1. Etorkiak

#### II.1.1. Kosmogonia

Hesiodoren *Teogonia*-k (K.a. VIII/VII. m.) ekarri digu munduaren etorkiari buruzko bertsiorik ezagunenaren berri.

Hatsarrea, Kaosa izan zen. Gero, Gea, bular zabalekoa, Olinpoko tontor elurtuan bizi diren Hilezkor guztien egoitza ziurra. Eta azkena, Eros, jainko hilezkorren artean ederrena, gorputzadarrak laxatu eta jainko zein gizaki guztien bihotza eta borondate zuhurra bere bularretara erakartzen dituena.

Kaonetik Erebo eta Gau beltza sortu ziren. Era berean, Gauetik Eterra eta Eguna jaio ziren, Ereboekin maitasunean lotu ondoren erditurik.

Gea, lehenbizi, neurri berdintsuko Urano izartsuaz erdi zen, alde guztietatik euts ziezaion eta horrela, jainko-jainkosa zorientzuen betiko egoitza ziurra izan zedin.

0. EHUren UPV 033.130-HA055/97 ikerketa proiektuaren barruan egin ahal izan da lan hau.

1. Definizioei buruzko laburpena ikusteko, cf. García Gual 1992, Dowden 1992 eta Edmunds 1990.

Mendi handiez ere erdi zen; jainkosen egoitza gozoa dira mendiak, mendi oihantsuetako ninfen egoitza. Berak munduratu zuen orobat olatu zakarreko itsaso antzua, Pontoa, harreman gozori izan gabe (*Teogonia*, 116-154)<sup>2</sup>.

### II.1.2. *Teogonia*

Hesiodoren *Teogonia*-n jainko-jainkosen genealogia bat eskaintzen da, hauek ere etorki bat baitute. Baina beste idazle baten bertsioa ikusiko dugu oraingoan, hots Apolodororen *Biblioteka* liburukoa:

Urano izan zen unibertso osoa menderatzen lehena. Gearekin elkartu eta Hekatonkiroak ekarri zituen mundura: Briareo, Gies eta Koto. Hauek gaindiezinak bihurtu ziren hala tamainan nola indarrean, bakoitzak ehun esku eta berrogeita hamar buru baitzituen.

Gero Gea bekokian begi bakarra duten ziklopeez erdi zen (Arges, Esteropes eta Brontes). Baina Uranok hauek estekatu eta Tartarora jaurti zituen, Gearengan seme berriak, hots, Titanak (Ozeano, Zeo, Hiperion, Krio, Japeto eta gazteena, Kronos) eta alaba berriak, hots, Titanideak (Tetis, Rea, Temis, Mnemosine, Febe, Dione eta Tea) sorraraziz<sup>3</sup>.

Orduan jainkoen arteko lehia sortzen da jainko-erregetza erdietsi nahian. Uranok Lur barruan gordetzen zituen Geak ematen zizkion seme-alabak eta honen deiari erantzunez genitalak moztu zizkion Kronosek aita Uranori: Uranoren zikiratze ospetsua da. Anaiak askatu zituen eta hauek berari eman zioten agintea.

Baina Kronosek anaiak berriro estekatu eta Tartaroan sartu zituen, arreba Rearekin ezkontzeko. Geroztik Kronos-Rea bikoteak hartzen du lehengo Urano-Gea bikotearen lekua.

Kronosi ere semeek kentzen diote agintea. Zeus da aitaren aurkako borrokan —Titanomakia esaten zaio borroka honi— buru nagusia. Baina berarekin dihardute anaiak, Titan batzuek, Ziklopeek eta Hekatonkiroek. Kronosen aldean bere anaiak gehienek —ez guztiek— borrokatzen dute. Zeus ateratzen da garaile eta berea izango da geroztik munduaren aginte nagusia, banaketa baten barruan bada ere: Zeusi egokitu zitzaion zozketan zeruaren agintea, Poseidoni itsasoarena eta Plutoni Hadesarena.

### II.1.3. *Antropogonia*

Gizakiaren etorkiari buruzko azalpen mitiko gehienak talde etniko, dinastia edo hiri baten jatorrien azalpenean gauzatzen dira, baina badira gizadi osoaren azalpena agertu nahi duten kontakizunak ere. Hiru dira azalpen orokor nagusiak: bost arrazena, sortzailatzat Prometeo hartzen duena eta azkenik Deukalion eta Pirrarena.

Hesiodoren *Lanak eta egunak* (106-201) liburuan bildu da **bost arrazen kontakizuna** (ik. Vernant 1983: 21-89). Beranduagoko bertsioetan (adibidez

---

2. Zati luzeago bat irakurri nahi duenak euskaraz, ikus beza Giltza-Edebé 1997: 23-24. Hartan oinarritu da batik bat gure itzulpena ere.

3. Hemen ez dira aipatzen Giganteak, Kronosek Uranori genitalak moztu zizkionean honen odola eta Lurra nahastean sortuak.

Virgilio, Tibulo eta Horazio —cf. Brisson 1992 eta Bauzá 1993— latindarrak arrazak barik aroak aipatzen dira. Hesiodoren arabera, gizakien bost arraza desberdin sortu zituzten jainkoek. Urrezko arraza izan zen hatsarrean, Kronosen agintepean; gizakiak «jainkoak bezala bizi ziren» hauetatik hurbil, eritasun eta zahartzarorik gabe. Baina gizon hauek lurperaturik geratu ziren eta orduan jainkoek arraza berri bat sortu zuten, zilarrezkoa, ez hura bezain noblea. Zeusek hauek akabatzea deliberatu zuen, ez baitzizkieten jainkoei zor zizkieten oparigaiak eskaintzen. Orduan brontzezko arraza sortu zuen, harroa eta bortitza, armen brontzearekin bere burua deuseztatu zuena. Ondoren heroiak agertarazi zituen Zeusek, arraza zuzen eta prestua, Tebas eta Troiako harresien aurrean borrokatuko zuena; borrokaldi haietatik bizirik atera zirenak Zoriontsuen Uhartera bidali zituen Zeusek. Burdinazko arraza da azken katebegia, egungo gizadia, hasierako bikaintasuna eta zoriontasuna galdu dituen.

**Prometeori** buruz bi bertsio daude (cf. Vernant 1974 eta García Gual 1979). Berriaren arabera, Prometeok berak egin zuen lokatzez lehen gizona, jainkoen eredura. Baina Hesiodok (*Teogonia* 335-416 eta *Lanak eta egunak* 45-105) bilduriko bertsioan Prometeo bera ez da gizakiaren egilea, laguntzailea baino. Honen arabera, jainkoak eta gizakiak Mekonan elkarrengandik urrundu zirenean, Prometeok idi bat eskaini zuen oparigai gisa, Zeusi iruzur egin nahian zatibituta: alde batean larrua, haragia, erraiak eta gantza ipini zituen, eta bestean hezurak, gantzez estali eta itxura ederrez apainduta. Zeusek bigarren hau aukeratu eta bestea gizakientzat laga zuen, iruzurraren jakitun izan arren; baina ordainean sua kendu zien gizakiei. Prometeok ordea su-txinpart bat ostu zuen zerutik hilkorrei emateko. Zeusek zigor bana prestatu zuen Prometeorentzat eta gizonarentzat. Japetoren semea harkaitz batera kateatu zuen eta arrano batek egunero jaten zion gauetz berregin egiten zen gibela. Gizonarentzat emakumea sortu zuen zigor gisa: Pandora. Pandora ederra, ehule ona eta erakargarria zen, baina gaiztoa eta aldakorregia. Epimeteok, Prometeoren anaiak, opari gisa onartzen du pitxer batekin datorren emakumea. Pitxerraren estalkia kentzean barruan diren gaitz guztiak ateratzen dira gizonaren kaltegarri; soilik Itxaropena geratzen da barruan hilkorrentzat pozbidetara.

Antropogoniaren hirugarren greziar aldaera **Deukalion eta Pirraren** mitoa da. Deukalion Prometeo eta Pirraren semea da eta Pirra Epimeteo eta Pandoraren alaba. Prometeoren aholkuz eta Zeusen onespenearekin, ontzi bat egin eta beharrezko gauzekin ontziratzen dira. Bederatzi egunez nabigatzen dute, Kronidaren aginduz urak jaitsi arte. Bertsio batzuen arabera, Parnason jotzen du hondoa ontziak. Ontzitik irten, Zeusi opari bat eskaini eta arraza berri bat ekartzen dute mundura: lurretik harriak hartu eta atzerantzka jaurtitzen dituzte, begiratu gabe; Deukalionek jaurtitako harrietatik gizonezkoak jaiotzen dira eta Pirrak botarikoetatik andrazkoak.

## II.2. Jainko-jainkosak

### II.2.1. Olinpoko jainko-jainkosak

Kronosen seme-alabak dira jainko antropomorfikoen bigarren belaunaldia. Hades kenduta, lurpeko munduko jainkoa baita, jainko olinpikoen taldea osatzen dute (cf. Vernant 1974: 103-120). Olinpon bizi dira, sendi bat bailira, aita moduko

Zeusekin. Ezin dira bakoitza bere aldetik aztertu, elkarrekiko harremanetan baino, bakoitzaren funtzioa ere besteenak zedarrizten baitu.

Guztira hamabi jainko-jainkosa dira. Batzuetan Hestia sartzen da hauen artean, eta beste batzuetan honen ordez Dioniso. Bi belaunalditan bana daitezke: helduak (Zeus, Poseidon, Hera, Hestia eta Demeter) eta gazteak, Zeusen seme-alabak: Ares eta Hefesto, Zeus eta Heraren semeak; Atenea, Zeusen alaba; Apolo eta Artemis, Zeus eta Letoren seme-alaba bikiak; Hermes, Zeus eta Maia ninfaren semea; Dioniso, Zeus eta Semele hilkoraren semea; Afrodita, Homeroren arabera Zeus eta Dioneren alaba, Hesiodoren arabera Uranoren esperma eta itsasoa elkartzean sortua.

Lehen belaunaldiko bakoitzaren eginkizunak argi daude. **Zeus** aita modukoa da anai-arreben artean. **Hera** da bere legezko emaztea: etxandrea eta tronuko kidea da, baina amatasuna ez da garrantzitsua (soilik Ares eta Hefesto dira bien semeak). **Demeter** ordea, amatasunak definitzen du (Kore neska gaztearen ama da) eta kanpoan du bere alorra, labore eta soroen jainkosa gisa. **Hestia** aitzitik etxe barruko jainkosa da: etxeko sua zaintzen du. **Poseidon**, itsasoen eta lurpekoen jauna da, jainko-jainkosa gazteen osaba aitaren aldetik.

Bigarren belaunaldian ere zehatzak dira bakoitzaren lanak. **Hefesto** jainko errementaria da, sua eta metalen artea menderatzen dituen. **Apolo** sendalaria izan da beti, garbikuntzaren jainkoa, baina batik bat musika, etorri poetikoa eta etorri profetikoa dira bere alorrak. **Dioniso**, Apolo distiratsuaren aurkako ertzean, mozorroa, berotasuna, mahatsa, mozkorra, ardoa eta gogo-bahitzearekin lotzen da. **Hermes** jainkoen mezularia eta hildakoen arimen gidaria da. **Afrodita** maite-oldarraren jainkosa da eta Atenea eta Artemis aitzitik birjina eta garbiak. Baina **Atenea** eta **Artemis** ere elkarren osagarri dira: lehenaren alorra jakituria eta teknika dira, ehungailua eta hiria; bigarrena ordea ehiztari basozalea da, basapiztien anderea.

Jainko hauek ezaugarri antzekoekin baina izen berriarekin ezagutzen dira Erroman: Zeus / Jupiter, Poseidon / Neptuno, Hestia / Vesta, Demeter / Zeres, Hera / Juno, Atenea / Minerva, Apolo / Apolo, Artemis / Diana, Ares / Marte, Hermes / Merkurio, Afrodita / Venus, Hefesto / Vulcano, Dioniso / Bako<sup>4</sup>.

### *II.2.2. Infernuko jainkoak*

**Hades** da lurpeko jainko handia, itzaletakoa, hilen mundukoa, eta mundu honi ere Hades esaten zaio. Gainerako jainkoek ez dute maite eta gizonen begirunea diote baina ez dute gurtzen. Bere izena ere ez dute esaten, beldurrez.

Demeterren alaba bahitu zuen emaztetzat hartzeko: Kore edo Persefone (Erroman Proserpina). Ama alabaren bila hasi zen eta gertaturikoa esan ziotenean alde egin zuen Olinpotik haserretuta. Orduan gosea nagusitu zen munduan eta erdibideko irtenbide bat bilatu zuten: Persefone urte erdi biziko zen amarekin (orduan poztu egiten da ama eta udaberria eta uda etortzen dira mundura) eta urte

---

4. Atal hau behar baino laburragoa da gainerakoaren aldean, mito hauen garrantziari begiratzen bazaio. Nahita laburtu dugu irakurlearentzat ezagunena izan litekeela pentsaturik.

erdi senarrarekin infernuan (orduan udazkena eta negua izaten ditugu munduan, amaren atsekabez).

Senar-emazteekin batera beste batzuk ere bizi dira Hadesen. **Karonte** agurea txalupazaina da eta hildakoen arimak laku-ertz batetik bestera eramaten ditu. **Zerbero** hiru buruko zakur beldurgarria da, infernuaren zaintzailea. **Eritniak** (Furiak) Lurra eta Uranoren alabak dira eta buruan ileak barik sugeak dituzte eta eskuan orobat sugez eginiko zarta eta hil-lastargia; gupidagabeak eta krimenen mendekatzaileak dira, eta madarikazioak gauzaten dituzte. **Hekate** ere itzalen eta hildakoen munduko jainkosa da; hiru aurpegi ditu eta gauez ibiltzen da, lastargiekin, leku bakartietatik, atzean txakur-talde zaunkalaria duela; bidegurutzeetan jartzen zen bere irudia.

### II.2.3. Jainko txikiak

“Jainko txikiak” esaten zaie goikoen aldean garrantzia txikiagoa dutelako edota eremu estuagoa hartzen dutelako, hala funtzioari dagokionean nola hedakundean edo denboran (berandu zabaldurikoak, besteak beste).

Jainko hauetako batzuk jarduten duten alorraren arabera sailka daitezke, hots ur, mendi eta oihanetakoak.

Uretako jainkotasunen artean **Ozeano** eta Tetisen seme-alabak aipatu behar dira lehenbizi. Ozeano ura bera da; hasierako irudietan lurra inguratzen zuen ibai handi bat zen eta hiru mila ibai sortzen ziren hartatik. **Ibai** hauek pertsonifikatzean jainkoak sortzen ziren: Inako, Alfeo, Eskamandro, Nilo... **Ozeanidak** ere Ozeano eta Tetisen alabak dira, itsaso azpiko ninfak. **Ninfa naiadeak**, bizi diren iturburu, iturri edo ibaiko jainkoak izaten dira. Iturri batzuk oso ezagun egin dira, hala nola Kastalia, musen eta Apoloren Parnasoko iturria.

Itsasoan **Nereo** aipa daiteke lehenbizi, Gea eta Pontoren lehenengo semea delako, jainko on eta baketsua. **Nereidak** bere alabak dira, olatuen pertsonifikazioa. Nereida ezagunena **Tetis** da (ez Ozeanoren emaztea, beste bat baino), Akilesen ama. **Triton** Poseidonen semea da; itsasoan bizi da eta gorputza gizakiarena du baina beheko aldea arrainarena. **Proteok** itsas txakur taldeak bazkatzen ditu.

Mendian, basoan eta zelaietan jainkotasun edo iratxoak bizi dira (*daimones*). **Pan** larreko jainkoa da eta ninfen atzetik ibili ohi da sexu-nahikari aseezinez, txirula jotzen; gizaki itxura du, baina adarrak eta hankak akerrarenak. **Satiroak** ibiltzen dira berarekin; basoko iratxoak dira, larreko bizitza eta mugagabeko ugalkortasunaren ordezkariak, lizunak, ardoaren eta dantzaren maitaleak; gizaki itxura izaten dute, baina belarri zorrotzak eta ahuntz hankak. **Sileno** esaten zaio silenoen banakotasun mitologikoari; hauek satiro zaharrak dira, musikari trebeak. **Priapo** berandu iritsi zen Greziara; ugalkortasunaren jainkoa da, baina izaera haragikoiarekin; itxuragabeko gizaki bat irudikatzen da, zakil izugarri bat tente duela; soroak eta lorategiak babesten zituen. Azkenik **ninfak** (dontzeilak) zelai, zuhaitz eta orokorrean izadiko iratxoak dira, zelai eta baso bakartietan aurkitzen diren neska gazte ederrak; mota askotakoak daude lekuen arabera (driadeak arboletakoak, oreadeak mendietakoak...) eta banako batzuk oso ospetsuak dira (Kalipso, Zirtze, Euridize...).

Jainko txikien artean sartzen dira orobat eginkizun edo gertakizun jakin batzuetan garrantzia hartzen duten jainkoak. **Iitia**, esaterako, haurgintzan laguntzen duen jainkosa da. **Himeneo**, eztei-segizioko jainkoa da; lastargia, lore koroa eta txirula ditu ikurrak.

Eguzkiak, ilargiak eta egunsentia ere euren jainkoak zituzten greziar mitologian, hurrenez hurren Helios, Selene eta Eos. **Heliosek** egunero zeharkatzen du ortzia zaldidun gurdi gainean, goizean sortaldetik abiatuta arratsean Ozeano ibaian hondoratzeko, urrezko kopa batek sartaldera eraman dezan. **Selene**, ilargia, bere arreba da eta gauetan zilarrezko gurdian ibiltzen da ortzian zehar, bi zaldiren atzetik. Egunsentia, **Eos**, «arrosa-eriduna» da.

Beste multzo batean kontzeptu abstraktoen pertsonifikazioa diren jainkoak ikus daitezke. **Eris** liskarraren pertsonifikazioa da; Tetis eta Peleoren ezteietarako gonbidatu ez zutenez, haserreturik, soilik ederrenak har zezakeen sagarra jaurti zuen, hots, Hera, Afrodita eta Atenearen arteko liskarra (zein baino zein ederragoak zirela eta) eta luzera Troiako gerra biztuko zuen "liskar-sagarra"<sup>5</sup>. **Nemesis**, Gauaren alaba, gehiegikeriak, are zoriontasunaren gehiegikeriak eragozteko dago. **Nike**, Garaipena, hegodun irudi txiki moduan aurkezten da, garaipen koroekin. **Thanatos** (Heriotza) eta **Hipnos** (Loa) Gauaren semeak dira eta **Eros** (erromatarrentzat Cupido) Afroditaren seme jostaria; hiruak irudikatzen dira hegoekin.

Jainko-jainkosa taldeetan hirukoteak dira ugarien. **Moirak** (edo Parkak) banakoaren patua ezartzen eta burutzen dutenak dira: Kloto, Lakesis eta Atropo. **Kariteak** (edo Graziak) Afroditarekin batera ibiltzen dira, xarma eta edertasunaren sinbolo gisa: Aglaia, Eufrosine eta Talia. **Gorgonak** Itzaletako mundutik hurbil, leku desezagunean bizi ziren ahizpa ikaragarriak dira: Esteno, Euriale eta Medusa. **Musak**, Zeus eta Mnemosinaren alabak, talde handiagoan biltzen dira eta, hasieran horrela ez bada ere, beranduko idazleetan bakoitzari arte bat dagokio: Kalioperi epika eta hizlaritza, Kliori historia, Euterperi musika, Melpomeneri tragedia, Terpsikoreri dantza eta txirula, Eratori maitasun poesia, Polimniari poesia lirikoak, Uraniari astronomia eta Taliari komedia.

Azkenik, jainko txikitzat hartzen dira orobat greziar mundura garai historikoan eta bereziki helenismoan sarturiko jainkoak. **Isis**, jatorriz egiptoarra, ugalkortasunaren eta emakumeen jainkosa zen. **Zibeleren** jatorria Frigian dago eta Ama Handia da, jainkoen ama, hau ere ugalkortasunarekin lotua. **Mitra**, berez giariaren jainkosa indoirandarra da eta gutza misterikoa izan zuen.

## II.3. Greziar heroiak

### II.3.1. Ezaugarri nagusiak

Greziar mitologian ugari dira heroiak<sup>6</sup>. Ez dira ez gizakiak ez jainkoak, erdijainkoak baino (*hemitheoi*). Gizakiak baino indar, ausardia eta botere

---

5. Mitoaren kontakizun osoa Luzianoren arabera eta honen inguruko azterketa irakur daitezke euskaraz. Cf. Giltza-Edebé 1998: 5-6.

6. Atal honi buruz Brelich 1958 irakur daiteke.

handiagoa dute, baina hauek bezain hilkorrak dira. Jatorriz ere jainko-genealogia dute, batzuetan aita edo ama jainko edo jainkosa bat dutelako, eta beste batzuetan jainkozko etorkia urrunago dutelako. Hil ondoren, heroi batzuek Zoriontsuen Uhartean edo Elisio Zelaian hartzen dute atsedena. Gainera gurtu ere egiten dira, jainkoen erara ez bada ere.

Guztien itxura da ohiz kanpokoak. Larregitasuna edo izugarrikeria agertzen dute ezaugarriren batean, eta gehienetan ezaugarri positiboekin batera negatiboak ere nabarmentzen dira. Heroiekin askotan erlazionatzen dira gizaki artean ohiz kanpokoagoak diren kontuak: heriotza ez naturalak, borrokaldiak, joko garrantzitsuak, igerkizunak, sendaketak, misterioak, heldutasuneko igaro-errituak, hiri, herrialde edo jaialdien sorrera...

Heroiak eta hauen egitandiak ziklo heroikoetan biltzen dira. Hauetan heroi edo gertakizun ugari lotzen dira, sendi bateko belaunaldien hariarekin (Atridak esaterako), gerra baten inguruan (Troia zikloa), ekintza nagusi baten aitzakiaz (Argonauten bidaldia)...

Heroien tipologia askotarikoa da. Baina badirudi nabarmentzen den ezaugarri bakar bati begiratuta bi mota behintzat bereiz daitezkeela. Batetik, heroi sortzaile edo zibilizazio ekarleak dira hiri, herrialde, etnia edo halakoren bat sortu bide dutenak edo horietan gizakia bizitzeko baldintzak ezarri dituzten heroi abenturazaleak (Herkules, Jason...). Bestetik, heroi gerlariak dira borrokaldietan nabarmentzen direnak (Akiles adibidez). Gerta liteke bakoitzak eginkizun bat baino gehiago hartzea (Ulisesek, esaterako, biak hartzen ditu, Troiako gerran jardun ondoren abiatu baitzen mediterraneoan barna abenturaz abentura).

### *II.3.2. Heroi nagusiak*

**Herakles** (erromatarren artean Herkules) da greziar heroi handiena. Zeus eta Alkmenaren semea da. Umetarik izan zen luzea, indartsua eta buruernaia. Egítandi ugari burutu zuen hala bakarrik nola taldean (Troia setiatzean adibidez). Lehoi larrua bizkarretik behera eta burubabes gisa lehoi burua dituela irudikatzen da, eskuan berak eginiko mailutzar edo borra hartuta. Megararekin ezkondu ondoren, zoratu egin zuen Herak eta bere semeak eta lobak hil zituen. Tebasetik erbesteratuta, Delfosera iritsi zen eta han iragarri zioten Euristeo erregearentzat hamar lan eginez gero hilezko bihurtuko zela. Erregeak lan hauetako bi onartu ez zituenez, azkenean hamabi lan burutu zituen, bere indarrari eta buruargitasunari esker.

Lehenengo lanean Nemeako lehoia hil eta larrutu zuen. Bigarreanean Lerna eskualdeko Hidra izugarria hil zuen. Hirugarren lana basurde bat harrapatzea izan zen. Urrezko adarrak eta brontzeko apatxak zituen oreina harrapatu behar izan zuen laugarren lanean. Bosgarren lanean Estinfalo lakuko hegazti beldurgarriak uxatu eta akabatu behar izan zituen. Seigarrenean Augias erregearen ukuluak eta soroetako simaur piloak garbitu zituen. Zazpigarren lana Kretako zezena bizirik harrapatzea zen. Zortzigarrena, Diomedes erregearen behor gizajaleak mantsotu eta Euristeori eramatea. Bederatzigarren lanean Hipolita Amazonen erreginarean gerrikoa lortu behar izan zuen. Gerion hiru gorputzeko munstro izugarriaren iditalde bereganatu zuen hamargarren lanean. Hamaikagarrenean urrezko sagarrak



kendu zizkien Hesperide ninfei eta Ledo dragoiari. Azken lanean Zerbero Zakurra hilen erreinutik ateratzeko eskatu zioten<sup>7</sup>.

Beste egitandi batzuk ere burutu zituen baina azkenean Deianira emazte jeloskorrak hil zuen, tunika pozoitua jantziaraziz erreta.

**Teseo** da bigarren heroi garrantzitsu bat. Berez honen irudia Heraklesenaren errepikapen modukoa da, Atenasko heroi gisa. Munstro eta lapur ugari hil zituen baina egitandi ezagunena Minotaurorekin Kretako labirintoan gertaturikoa da. Minotauro zezen-burua eta giza gorputza zituen munstroa zen, labirintoan opari gisa eskainiriko zazpi neska-mutil atenastar jateko ohitura zuena. Teseok munstroa akabatu eta egoera bukatzea erabaki zuen. Ariadnak, Minos erregearen alabak lagundu zion, harila emanez barrurako bidean askatzen joanik itzulbidea erakusteko. Teseok Minotauro hiltzea lortu zuen, bai eta kanporako bidea aurkitzea ere, harilari esker. Ariadna hartu eta Kretatik abiatu zen, baina Naxos uhartean laga zuen erregearen alaba. Haize oihal zuria jarriaz jakinarazi behar zion aitari kontuak ondo atera zirela; baina ahaztu egin zitzaion oihal beltzak kendu eta zuriak jartzea eta aitak, semea hil egin zelakoan, bere buruaz beste egin zuen.

**Jason**, Iolkoseko Eson erregearen semea zen. Pelias anaiak tronua kendu zion erregeari eta Jasonen amak Kiron zentauroaren esku utzi zuen umearen heziketa. Hazi zenean, Iolkosera itzuli zen koroa eskatzeko, baina ibai bat zeharkatzean sandalia bat galdu zuen. Peliasengana iritsi zenerako, honi iragarrik zioten kontuz ibili behar zuela sandalia bakarrarekin etor zedinarekin. Aurrez aurre izan zirenean Jasoni berari galdetu zion Peliasek ea zer egingo lukeen tronua kentzen saia zedinarekin eta erantzuna izan zen lan zail bat proposatuko liokeela: urrezko aharilarrua eskuratzea. Erregeak lan hori berori proposatu zion Jasoni. Hegodun ahari baten larrua zen urrezko aharilarrua eta Kolkiden zegoen, inoiz lorik egiten ez zuen suge edo dragoi batek zainduta.

Jasonek onartu zuen eginkizuna eta Argonautekin batera abiatu zen Kolkiderako bidaia luze eta arriskutsuan. Bidean geldialdia egiteko lehorreratu ziren bakoitzean abentura berri bat bizi izan zuten: Lemnos uharteko emakumeekin, Bitinoako erregearekin, Traziako Salmideson harpiekin... Kolkidera iristean Eetes erregeak bi lan egiteko eskatu zion aharilarrua eman baino lehen. Medea erregearen alabaren laguntzari esker lortu zuen hala lan horiek betetzea nola aharilarrua eskuratu eta erregeari ihes egitea. Itzuleran ere arrisku ugari aurkitu zuten (Orfeo eta sirenen uhartea, Eszila eta Karibdis harkaitzak, Sirtes uharrak...). Iolkosera itzultzean Pelias hil zuten mendekuz Jason eta Medeak. Baina Jasonek laga egin zuen Medea, eta jainkoek ez zioten barkatu desleialtasuna: Argos ontziko oholek jo eta hil zuten.

**Akiles** heroi gerlariaren eredia da. Amak Estigeiko uretara sartu zuen ezin-zaurituzkoa egiteko, baina orpotik eusten zionez atal hura ez zen busti eta zaurituzko modukoa zuen. Kiron zentauroarekin hazi zen. Troian hilko zela zekienez, Likomedes erregearen etxera bidali zuen amak, honen alaben artean neska modurra bizitzeko. Baina Ulises joan zitzaion bila, ezagutu zuen eta berarekin eraman.

---

7. Hamabi lanen kontakizun osoa euskaraz irakurtzeko, ikus Agirre & Bilbao argitaratzeak.

Ospetsua da bere haserrea, Agamemnonek Briseida neskalaguna kendu zionean uko egin baitzion borrokatzeari. Baina Troiarrek Patroklo laguna hil ziotenean Hektorrekin borrokatzea erabaki zuen, hau hil eta gorpua mendekatu arte.

**Ulises** heroi ospetsuenetakoa izan daiteke. Itakan bizi zen Penelope emaztearekin, Troiako gerrara abiatu arte. Gudalburu garrantzitsuenetakoa zen eta berari otu zitzaion egurrezko zaldiaren amarrua. Baina ezagunagoak dira Itakarako itzulbidean gertatutakoak, Odisean bildurikoak: Feaziarren herrikoa, ziklope antropofago begibakarrak eta Polifemo aurkitu zituztenekoa, Zirtzeren uharteko egonaldia, hilen mundura eginiko ikustaldia, sirenei ihes egin zietenekoa, eguzkiaren behiak jatearren tximistak jo zituenekoa, Kalipsorekin izandako harremana... Itakara itzuli zenean ere ez ziren abenturak amaitu, Peneloperen ezkongaiak hil behar izan baitzituen eta azkenik Peneloperi sinestarazi bera zela bere benetako senarra.

Esan daiteke Ulises heroi oso-osea dela. Gerlari ausarta eta aldi berean zuhurra, amarrutsua eta buruargia. Ateneak oso maite du bere buruarnaitasuna.

Azkenik, familien historiak ere heroien mitologiarekin batera aztertu behar dira. **Sagak** ere esaten zaie eta ospetsuenak Tantaloren oinordekoenak (Pelopidak: Pelope, Atreo, Tiestes, Egisto, Agamemnon, Menelao, Orestes, Elektra...) eta Labdakoren oinordekoenak dira. Tebasekoak dira Labdazidak, ezagunena Edipo, batik bat Sofoklesen edo Eskiloren tragediei esker ezagutzen duguna.

### III. Erromatar mitologia

Askotan aipatu da erromatarrek, greziarren aldean, ez direla batere mitologiazaleak. Egia da, esaterako, jainko erromatarrek izena eta funtzio argia duten elementu hutsak direla, kontakizun edo historiarik gabeak. Esan daiteke erromatarrek gertakizun guztiak esparru kronologiko batean aurkeztu nahi dituela, baina hala mitoak nola datu historikoak nahita nahasiz, elaboratuz eta, nahi bada, elezahar gisa eskainiz (cf. Poucet 1985).

Badakigu<sup>8</sup> erromatarrek tradizio analistikoan historiatzat aurkeztu dutenaren zati handi bat mitologia eta ideologia indoeuroparraren oinordeko baino ez dela.

Ondare indoeuroparrekin batera elementu etnografiko eta folklorikoak ere ezagutu ditu Dumezilek elezahar erromatarretan (Brutorenean esaterako), hots, munduko kultura askotako folkloean aurkitzen diren elementuak.

Jakina, greziar tradizioaren indarra ere oso garrantzitsua da, besteak beste greziar heroiek Mendebaldeantz egindako bidaien kontakizunetan, sorrera elezaharretan, bereganaturiko pasarteetan, etab.

Azkenik erromatarren euren emari garrantzitsu bat etiologiak eta sasietimologiak izan dira. Kontakizun etiologikoetan erakunde, ohitura, toki... ezagunen zergatia edo sorrera azaldu nahi da, osorik edo zati batean asmatu-rikoi kontaketa- ren bitartez, hau iragan urrunean kokatuz. Baina, erromatarren kasuan, ez dira joaten hasierako monarkia baino atzerago eta nahiago dira gizon handiak protagonista gisa, jainkoak baino.

---

8. Batik bat Dumezil 1977 da atal honetan hemendik aurrera esaten denaren iturri nagusia.

Aipatu da orobat mitoak historian eta kronologia zehatz batean kokatzeko zaletasuna. Ideia moralak eta politikoak helarazteko duen erabilgarritasuna ere erromatar mitologiaren ezaugarri berezi bat da: egia moralak transmititzen dituzte eta helburu politikoekin egokitzen dira, estatuaren beharren arabera. Erromatar balioak eta erakundeak goraiatzeko eta sendotzeko dira horrela (cf. Grant 1971), bai eta erromatar familia handiak ere, hauentzat genealogia loriatsuak asmatuz (Juliotarren familian adibidez, Askanio Lulo eta Eneasen bitartez Venusenganaino).

### III.1. Erromatar jainko batzuk

Erromatar panteoiko jainkoak zenbaezinak dira, erromatar erlijioan bizitzako prozesu edo funtzio bakoitzak bere jainkoa baitu. Baina jainko italiko zaharrak Greziakoekin asimilatzen dira, euren berezko ezaugarriak galduz. Horregatik gehienetan bat datoz greziar jainkoekin, latindar izena eta ikur, ezaugarri edo pasarte bereziren bat erantsiz gero.

Grezian parekorik ez dutenen artean **Jano** da garrantzitsuena. Gauzen eta munduaren hatsarrea da, bai eta ate, sarrera eta hasieretako jainkoa. Gizakiaren eta landareen ernalkuntza ere berak babesten du. Bi aurpegirekin irudikatzen da (*Janus Bifrons* edo *Janus Geminus*), ezkerreko eskuan giltza bat eta eskuinekoan makulua dituela.

Janorekin erlazionatzen da **Saturno**, haren erreinuaren ondoren Olinpotik jaurti baitzuten hau, eta hala nekazaritza nola hirietako zibilizazioa ekarri baitzituen Italiara. Eskuan segalariaren igitai edo mahastizainaren aihotza dituela irudikatzen da.

Landa-jainkoa eta artaldearen babeslea da **Fauno**, batzuetan **Silvano** oihan-jainkotasunarekin nahasi ohi dena. **Ana Perena** denboraren jainkoa izan bide zen antzinan; erromatarrek urte berrira iristean (*annare*) eta denbora luzean bizi nahian (*perennare*) eskatzen diote laguntza.

Jainkotasun anizkoitz batzuek ere funtzio garrantzitsuak betetzen dute. **Lareak** eta **Penateak** etxeko jainkoak dira eta **Maneak** hilen jainkoak. Abstrakzioek ere bakoitzak bere pertsonifikazioa dute, **Fortuna**, **Fides** eta **Victoria** esaterako.

### III.2. Heroiak

Eneas eta Romulo heroi sortzaileek, monarkia garaiko zazpi erregeen istorioek eta Errepublikaren sorreraren kontakizunak Erromako historiaren hastapenen tradizioa osatzen dute, pertsonaia heroikoak protagonista gisa jarri eta sarri historia eta mitoa nahasiz.

#### III.2.1. Heroi sortzaileak

Greziar jatorria du **Eneasen** elezaharrak eta greziar hirien sorrera azaltzen duten kontakizunen ereduak da. Troiaren hondamenditik bizirik ilki zen troiar heroi handi bakarra da Eneas, Ankises eta Venusen semea. Aita zaharra bizkarrean hartuta, Askanio semetxoari eskutik helduta, lagun gutxi batzuekin itsasoratzen da, penateak besapean dituela.

Mendebalderantz abiatzen da, neke eta zailtasun ugari gaindituz, besteak beste Kartagoko Dido erreginaren maitemina. Baina iragarpen, amets eta orakuluek gidatzen dute Laziorainoko bidean: han aurkitu zuen zerri eme zuria hogeita hamar zerrikume jaiotze berririk (patuak hautaturiko lekuaren seinalea) eta ibai hegi batean gosearen gosez plater moduan erabilitako opilak jan zituztelako «ai ene, mahaiak ere jan egin ditugu eta!» esan zuenean semetxoak, ziurtasunez jakin zuen Eneasek han eraiki behar zuela hiria, iragarpenari jarraituz.

Lekuko herritarren aurkako borroketan jardun behar izan zuen gero, Latinorekin adiskidetasunean elkartu arte, honen alaba Lavinia emaztetzat hartuta. Lavinium hiria sortu zuen eta Turno rutular erregearen aurkako borrokan hil zenean Iuppiter Indiges jainkoaren irudipean jainkotu zen gurtua izateko.

Eneasen elezaharrek lotura nabarmenak ditu **Romulorenak**<sup>9</sup>. Romuloren heroitasuna adierazten duen ezaugarri bat jainkozko jatorria da, Marteren semea baita bertsiorik gehienetan; bikia izateak ere, Remorekin batera kasu honetan, izaera berezia azpimarratzen du munduko mitologia askotan.

Ohikoa da orobat heroia haurtzaroan arriskuan izatea; kasu honetan Tiber ibaian lagatzen dituzte bikiak baina otso emeak ematen die esnea; hots, familia batetik, antolaturiko gizatalde batetik baztertu dituztelako hasierako kaosean erortzen direnean, otso emea da gizatalde berriaren sortzaile izango denari sarbide-proban bizitza berrirako bidea eskaintzen dion hilen mundu izugarriaren ordezkaria.

Gizadi osoaren ibilbidea ere sinbolizatzen dute Romulo eta Remok, haurtzaroan piztiak bezala bizi baitira, gero Faustulo artzaina eta Larentia emagalduekin laguntzaz legebideko hiritarraren bizimodurako igarobidea ibiltzeko.

Erromaren sorreraren aurreko augurio hartzea erlijio ekitaldi osoa da. Augurioaren esku geratzen da bikietako zein izango den Erromako errege erabakitzea. Romulo Palatino mendian jartzen da zain, eta Remo Aventinon. Remok ikusten ditu lehenengo sei sai, eta gero Romulok hamabi. Remok lehenen ikustea argudiatzen du bere alde, baina kopuruarekin batera Romuloren aldeko elementua da hori ere, Erroman bigarren seinale batek lehena berretsi edo baztertu baitezake.

Bien arteko liskarra sortzen da eta, bertsio hedatuaren arabera, Remok salto egiten du harresi berrien gainetik eta Romulok hil egiten du, hiri berriaren eta jeinu ezezagunen eremu basatiaren arteko muga ukatzean zibilizazio berria ukatu duelako. Errege odoltzalea izango da Romulo hasiera-hasieratik, heroi guztiak bezala. Bere erregetza garaian gizarte bizitzaren oinarriak ezarriko ditu elezaharren arabera: tribu antolaketa, gudarostea, senatua...

Heroiei dagokien bukaera ere badu Romulok: laino batean desagertzen da trumoi artean. Bigarren bertsio baten arabera senadoreek hil eta zatikatuta lurperatu zuten isilean.

### *III.2.2. Erregeak*

Erromaren lehen egunetako tradizioan zazpi errege ageri dira hasiera-hasieratik eta hauekako bakoitzak ekarpen bat eskaintzen dio hiriaren osaketari,

---

9. Liou-Gille 1980 da Romulori dagokionean erabili dugun iturri nagusia.

monarkiaren bilakabide bat erakutsiz tiraniaraino (Tarkinio Hantustetsua) eta ondorengo gobernu era berriraino (Errepublikak).

Zazpi erregeen artean multzo oso bat osatzen dute **lehenengo lauek**, hauekin erabat osaturik geratu baitzen indoeuropar herrien hiru funtzioak betetzen zituen erkidegoa.

**Romulo** eta **Numa** errege kartsua eta zuhurra dira hurrenez hurren, eta bien artean sortzen dute hiria lehenak auspizio eta gerra bitartez eta bigarrenak lege eta erakunde sakratu bitartez.

Numaren inguruko kontakizunen artean bat hautatu dugu, tximistak menderatzeko erritu bat eta apaiz salioen elkargoaren sorrera azaltzen dituenena. Honen arabera, Numaren erregealdian ekaitz eta tximista ugari izan zen. Egeria emaztearen aholkuz, Piko eta Fauno jainkotasunak ardoz loguratu, harrapatu eta kateatu zituen, tximistak urruntzeko bidea azal ziezaioeten. Hauek Jupiter jaitsarazi zuten eta honek erritua azaldu eta biharamunean brontzeko ezkutu arrauzkara bat bidali zion berme gisa. Numak halako hamaika egiteko agindu zuen (badaezpada, lapurretaren bat izan zitekeelakoan) eta apaiz salioen elkargoa sortu zuen hamabi ezkutuak gordetzeko.

Hirugarren erregea **Tulo Hostilio** da, gerrako teknikaria, Erromari gudarostea eta arte militarra ematen dizkiona, bere ezaugarrietan aurreko bien eta ondorengoaren aurkakoa.

Albaren aurkako gerran kokatzen da honen inguruko kontakizunik ezagunena. Gerra odoltsua amaitzearren, banakako borrokaldi batean erabakitzea deliberatzen dute Metio Fufeziok (Albako gudalburuak) eta Tulok. Albako Kuriazio anaia hirukiak Erromako Horazio hirukien aurka jardutea erabakitzen dute. Albatarrak Horazioetako bi hiltzen dituzte baina hauetako hirugarrenak hiru albatarrak hiltzen ditu. Erromatarrak garaipena ospatzen ari diren bitartean Horazioren arreba, Horazia, azaltzen da negarrez, Kuriazioetako bat bere senar-gaia zelako. Horaziok hil egiten du arreba suminez eta heriotza zigorra ezartzen diote berari. Aitaren eskariz zigorra ordeztu eta, burua estalita, uztarri baten azpitik igarotzen behartzen dute. Gudarien garbitze ospakizun baten azalpena da, hauek urtero gerratik hirira itzultzean betetzen zuten erritu bat azalduz.

Bitxia da Tuloren heriotza azaltzen duen pasartea. Zahartzaroan erlijio jardunetara itzultzea erabakitzen du, baina ez ditu hauek ondo ezagutzen eta Jupiter Eliziori dei egitean erratu zenez jainkoaren haserrea sortu eta honen tximista batek jota hil zen.

Azkenik **Anko Martzio** merkataritzaz, ongizateaz eta eraikuntzaz arduratzen da eta aurreko erregeen sintesia da, hala bake garaian nola gerra kontuetan aditua.

Bigarren multzo bat osatzen dute **hiru errege etruskoek**.

**Tarkinio Prisko** atzerritarra zen jatorriz eta erregearen adiskide eginez eta honen semeak iruzurrez baztertuz lotu zuen erregetza.

Polita da erregetza hau iragartzen dion seinalearen kontakizuna: Janikulo mendian, Erromara sartzeaz zela, arrano batek kendu zion burutik txanoa eta gainetik zarataka eta hegaka ibili ondoren berriro bere buru gainean ezarri zuen. Gurdian berarekin batera zegoen Tanakil emazteak berehala ulertu zuen etorkizun bikainaren adierazgarri zela gertaturikoa.

Beste pasarte baten arabera Romulok ezarritako hiru tribuak ugaltu nahi izan zituenean aurka egin zion Ato Navio augurrak, auspizioen berrespenik ez zuelako. Erregeak, augurraren jardunbideaz trufatuz, ea berak buruan zuena egin zitekeen galdetu zion. Honek, baietz; pentsaturikoa harri bat labanaz moztea zela agertu zionean, augurrak labana hartu eta moztu egin zuen harria. Zurtuta geratu omen zen erregea eta harrezkero ez omen zuen ezer egin augurrari galdetu gabe.

**Servio Tulio** jatorriz erromatarra da erromatar bertsioaren arabera eta etruriarra bertsio etruskoaren arabera.

Ovidiok bildu duen tradizioaren arabera Vulkano jainkoaren eta Okresia neskame ederraren semea zen. Ospakizun sakratu baten ondoren suaren gainera ardoa isurtzen ari zela zakil bat agertu zen sutan. Ugazaba-andrearen aginduz gainean eseri zen neskamea eta Servio sortu zuen. Livioaren bertsioaren arabera umetan burua inguratu zion su-koroa bat izan zen bere etorkizuneko erregetzaren adierazgarria. Tarkinio Hantustetsuak hil zuenean, Tulia alabaren gurdia zapaldu zuen.

Azken errege etruskoa, **Tarkinio Hantustetsua**, erabat ezberdina da. Gaiztotasunaren eta gaiztakeriaren irudia da, eta greziar historiako eta tragedietako tiranoen ezaugarriak atxekitzen zaizkio: ankerkeria, hantustea, sexu gehiegikeria...

### *III.2.3. Bruto, errepublikaren sortzailea*

Brutoren elezaharrak ere elementu historikoak eta mitikoak nahasten ditu erromatarren idealetako batzuen jatorria azaltzeko.

Bruto tarkiniotarren errege-etxekoa zen, erregearen arrebaren (Tarkinia) semea. Tiranoaren gortean zegoenez, arriskuan zen eta are bere anaia zaharra ere hil zutela ikusi zuen. Onez ateratzeko, ergelarena egitea erabakitzen du (Ulises, David edo Hamletek bezala). Tarkinio pozik hartzen du bere semeekin batera, esaten eta egiten zituen ergelkeriekin mutikoei barre eragiteko.

Gertakizun miresgarri baten ondoren (izurritea edo sugea, bertsioen arabera), Delfosera bidaltzen ditu Tarkinio semeak, orakuluari galdetzera; lehengusuak jostarazteko, hauekin batera doa Bruto ere, kontakizun folklorikoetako hirukote tipikoa osatuz. Aitaren oinordekoa zein izango den galdetzen dute bi anaiek eta orakuluak erantzuten du amari musua lehenen eman diezaionak izango duela hurrengo boterea. Anaiek ez dute ulertzen, baina Brutok, bertsio batzuen arabera estropozoz eta beste batzuen arabera erritu-keinu batez, ahuspeztu eta ama lurrari ematen dio musu.

Ondoren, sexu trangresio bat izango da (Greziako istorio askotan bezala) tiranoa kendu eta boterea Brutok hartzeko arrazoia. Tarkinioaren Sexto Tarkinio

semeak Lukrezia bortxatzen du<sup>10</sup>, bertuteen eredua, eta honek bere burua hiltzean Brutok sastakaia hildakoaren bularretik atera eta agerian jartzen du benetako izaera, zin eginez tarkiniotar guztiak egotziko dituela Erromatik. Horrela egiten du, foroan herria gogoberotzeko hitz egin ondoren, gudarostearen laguntzaz. Errepublika sortuta, kotsul bihurtzen da.

Kotsul gisa egindakoak, monarkiaren aurkako jardunak dira guztiak, are heriotzara arte. Tarkinioren aliatuen aurkako borrokaldi batean, Arrunte, Hantustetsuaren semeetako bat, ezagutu zuen etsaien artean. Ezproiez jo zuen zaldia haren aurka, amorruz, eta hark ere ber gauza egin zuen, elkarren aurka jo eta biak hil arte. Urte beteko dolua izan zuten Erromako matronek, laidoturiko ondrraren defendatzailearen ohoretan.

### **III.3. Elezahar ezagun batzuk**

Gertakizun edo egitandi heroikoen artean sar zitezkeen hauek, III.2 atalean, baina nahiago izan dugu atal berezi bat osatu, aurreko hiru multzoek osatzen duten historiaren haria eten eta garai ezberdinetan kokatzen diren istorio solteak direlako.

#### *III.3.1. Emakume sabinoen bahiketa*

Hiri sortu berrian emakumerik ez zenez, jaiak antolatu eta auzoko sabinoak gonbidatu zituen Romulok Erromara. Ikuskizunari adi zirela, erromatar gazteak gonbidatu artera oldartu eta neskak bahitu zituzten, harrapatu ahala, ederrenak senadoreentzat utzita. Ondorioz sabino eta erromatarren arteko gerra hasi zen, emakumeak, odol isurtzeaz nekatuta bi aldeetako gizonezkoen artean sartu arte, aita edo senar zituztenei bake eske. Gizonezkoek, hunkituta, gerra amaitu eta bi herriak elkartzea erabaki zuten.

#### *III.3.2. Tarpeia*

Emakume traidore zigortuaren istorioa da Tarpeiarena, greziar folkloean aurkitzen den berbera (Ariadna eta Medea, adibidez). Baina aldi berean Kapitolioko Tarpeiar Harriaren izenarentzako azalpena ere bada, handik behera amilarazten baitziren gaizkile batzuk.

Sabino eta erromatarren arteko gerran, Erroma sabinoek setiatuak zutela, ur bila atera zen gotorlekutik Tarpeia, erromatarren zaintzaile buruaren alaba, eta Tito Tazio sabinoak limurtu zuen hirirako sarrera erraztu ziezaien. Bertsio baten arabera urrezalekeriaz egin zuen eta beste baten arabera Tito Taziorenganako maitasunez. Baina besoetan zeramatena eskatu zienean sabinoei, haiek ezkutuez zapaldu eta hil zuten. Batzuen arabera urrezko besokoak nahi zituen beretzat eta saldukeria zigortzearen hil zuten sabinoek, euren aldekoa izan arren; beste batzuen aburuz sabinoak oharkabetu nahi zituen, erromatarrek ezkutuak kentzeko, eta sabinoek amarrua susmatu zutelako hil zuten.

#### *III.3.3. Portsenaren aurkako gerra*

Portsenaren errege etruskoak erromatarren aurka ekindako gerran hiru egitandi

---

10. Ikus lan honetan III.3.4 atala.

heroiko kokatzen dira, tradizioaren arabera Erroma salbatu zutenak, nahiz eta dirudienez Erroma konkistatzera iritsi zen Portsenaren historiak. Nazioz gintzan eredu garririk ziren erromatarrentzat kontakizun hauek.

**Horazio Koklesek** berak bakarrik (gero beste biren laguntzaz) eutsi zion etruskoen erasoari egurrezko zubi baten muturrean, beste muturretik bere lagunak zubia zerraz moztu ari ziren bitartean. Borrokan garrantzitsua zen bere begirada izugarria ('begibakarra' da latinez *cocles*). Etruskoak oso-osoan erori ziren ibaira, baina baita Horazio ere. Tiber ibaiak salbatu zuen ordea eta egun batean goldatu zezakeen lurra oparitu zion herriak, bai eta estatua bat eta jana.

**Muzio Eszevolak** setio egoeran erakutsi zuen bere adorea. Portsenak Erroma setiatu zuela, hiritik bera bakarrik irten eta errege etruskoa hiltzeko baimena erdietsi zuen senatuarengandik. Baina erregea hil beharrean, errakuntzaz honen idazkaria hil zuen. Atxilotu zuten eta Portsenaren aurrean aitortu zuen erregea hiltzeko asmoa zuela, eta bere ondoren beste gazte bat eta beste bat etorriko zirela asmo hura bete arte, hartarako hitzarturik zirelako erromatar gazte guztiak. Zioena egia zela erakusteko, sutan jarri eta erre egin zuen eskuineko eskua. Errege etruskoak, honen adorea miretsita eta etor zitezkeen hiltzaileekin beldurtuta, bake hitzarmena eskaini zien erromatarrei.

Kontakizun honek bi izenen azalpena eskaintzen duen: batetik *Scaevola* 'ezkertia' goitzeneko familiara eta bestetik *Prata Mucia* lekuarena, sari gisa eman baitzieten senadoreek lur sail hau.

Aipatu bake hitzarmenaren arabera gatibuak eman behar izan zizkion Erromak errege etruskoari. Hauen artean **Klelia** zegoen. Honek neska gatibu talde bat antolatu zuen igerian ihes egiteko. Lortu zuten alde egitea, baina Portsenak jakinarazi zuen hautsita geratzen zela hitzarmena ihes egindakoak itzuli ezean; itzuliez gero, ordea, aske utziko zuen Klelia, honen adorea saritzearren. Gatibu guztiak itzuli zituzten erromatarrek, baina Portsenak agindurikoa baino are gehiago eginez, askatuko zituen beste zenbait gatibu aukeratzeko utzi zion Kleliari. Honek gazteenak aukeratu zituen, horrela zegokiolarako neskatxa bati eta laidotuak izateko arrisku handiena zutenak zirelako.

Estatua bat eraiki omen zuten bere ohoretan, Via Sacra delakoan zegoen zaldi gaineko neskaarena alegia.

### *III.3.4. Lukrezia*

Erromatik hurbil, Ardean, borrokan ziren garaian, atsedean une batean, eztabaida sortu zuen noble gazteen artean, zein ote zen emazterik bertutetsuena erabakitzeko. Tarkinio Hantustetsuaren semeak eta Kolatino, Lukreziaren senarra, ziren solaskideen artean. Ardoz berotuta, euren etxeetara itzuli eta emazteak zertan ziren ikustea erabaki zuten. Erregearen errainak neska lagunekin aurkitu zituzten oturuntzetan, eta Lukrezia ordea etxean, neska batekin batera lanean.

Sexto Tarkiniori harexeren desioa sortu zitzaion eta gau batean ezpatarekin agertu zitzaion logelan. Lukreziak ez zuen harremanik onartu nahi izan, baina mehatxu egin zion erregearen semeak: onartzen ez bazuen hil egingo zuela eta



gainean esklabo baten gorpua jarrita adulterio salaketa egingo ziola. Lukreziak etsi egin zuen.

Gero mezuak bidali zizkien aita eta senarrari, hainbat arinen joateko eskatuz. Iritsi zirenean, gertaturikoa azaldu ondoren, bere buruaz beste egin zuen sastakaia bularrean sartuta, ondokoa esanez: «Zeuek ikusiko duzue hark zer merezi duen; nik, ez dut errurik, baina ezin dut zigorra ekidin; engoitik laidoturiko emakumeek ezingo dute Lukrezia eredutzat hartu bizirik jarraitzeko».

Erromatar istoriorik ezagunenetakoa da hau. Errepublikaren sorrera bideratzeaz gain<sup>11</sup>, bertutearen eredu bihurtu zen Lukrezia, baina idazle kristauek eztabaida sakonak izan zituzten suizidioaren egokitasunaz.

### III.3.5. Kamilo

Marko Furio Kamilo gudalburuaren adorea, Erromaren une larri bitan gailendu zen, Veies herri etruskoaren aurkako gerran eta galiarren erasoan hain zuzen.

Veies hamar urtez izan zuten erromatarrek setiaturik, menderatu ezinik. Baina azkenean Kamilok asmatu zuen hura hartzeko bidea, hots, lur azpitik eta harresien azpitik tunel bat eginez sartzea. Garaipenaren ondoren Ardeara erbesteratu zuten Kamilo, ospakizunetan arrandiatsuegia izan zelakoan.

Kamilo erbestean zela, galiarrek eraso zuten Erroma. Gau batean sartzeko zorian izan ziren, batzuk Kapitoloraino heldu baitziren, zakurrek ere entzun gabe. Junoren antzarak ohartu ziren ordea eta karraka egin eta hegoei eragitean ateratako zaratak esnarazi zituen erromatarrek. Baina handik lasterrera, setioa gehiago pairatu ezinik, errenditzea erabaki zuten. Urre kopuru bat ordaintzea eskatu zuten galiarrek, baina ordainketa gauzatzean ere ziria sartu nahi izan zieten erromatarrei eta iraindu egin zituzten. Pisaketa burutzen ari ziren bitartean Kamilo ailegatu zen. Ordainketa eten eta borrokaldiari ekin zion, galiarrak menderatu arte.

## IV. Elkarguneak euskal mitologiarekin

On Jose Miguel Barandiaranek dioenez<sup>12</sup>, euskal lurretan bizi den gizakiak Paleolito garaitik sinetsi du euskal mitologian nagusi diren elementuetan; horren aztarna dira kobazuloetan irudikatutako zaldi, zezen, basurde edo akerrak, esaterako.

Beste elementu batzuk, lehen indoeuropar kulturaren eraginez sartu dira euskal mitologian. Badirudi hauetakoak direla elementu kosmikoak. **Eguzki** edo **Ekhi**, Lurraren alaba da eta erritu ugari dago horren zikloen inguruan eta askotan irudikatzen da artelanetan, hala hilobietan nola etxeko tresnetan. **Ilazki**, **Ilargi** edo **Itargi**, emea da, askotan amandrea; hilen argia bide da eta eragin handia omen du nekazaritza-lanetan. **Urtzi** edo **Ortzi** zerua edo zeruko argiaren pertsonifikazioa da eta ekaitzak sortzen ditu. Hauekin konpara daitezke, jakina, **Helios**, **Selene** eta **Eos** neba-arrebak, eguzkiak, ilargiak eta egunsentiak Grezian zituzten jainkoak.

11. Ikus lan honetan III.2.3 atala.

12. Atal honi dagokionean ikus Barandiaran 1972 eta 1984, hitzaurreak bereziki.

Euskal Herria eta Akitania inguruan aurkituriko erromatar inskripzioek erakusten dutenaren arabera, esan daiteke duela bi mila urte Pirineo aldean orain ezagutzen ez ditugun jainkoak gurtzen zirela, gehienak euskal-akitanierazko izenekin (**Herauscorritsehe, Helasse, Aher-belste, Asto-ilunno...**), baina baita bestelakoak ere (**Uvarna, Tullonius...**). Ezer gutxi dakigu ordea hauei buruz eta ezin da ezer esan horien atzean den erlijio pentsamendu edo mitologiari buruz.

Euskal lurretan aurkituriko erromatar garaiko beste inskripzio batzuek edo irudiek erakusten dutenez, ordea, mitologia klasikoko pertsonaien berri ere bazuten hemen bizi ziren batzuek. Adibidez, Nafarroako Museoa ikus daitezkeen irudien artean **Bakoren** mosaikoa Andelosen (Mendigorría, Nafarroa) aurkitua da, **Teseo eta Minotauro**rena Iruñean eta brontzezko **Merkurio** txikia Iruñean; Iruneko Santa Elena Museoa ikus daitezke bestalde **Minerva, Marte, Sol** eta **Lunaren** brontzezko irudiak, Hondarribiko Asturiagan itsaspean aurkituak. Inskripzioetako jainkoen artean aipagarri dira **Jupiter** (Uxue, Nafarroa), **Jupiter Optimus Maximus** (Eslaba eta Aibar, Nafarroa), **Mars Invictus** (Monteagudo, Nafarroa), **Mater Magna** —Zibeles— (San Martín Unx, Nafarroa), **Sol Invictus** (Ibañeta, Nafarroa) eta **Ninfak** (Araia —Araba— eta Leire —Nafarroa—).<sup>13</sup>

Beste batzuetan erlijio erromatarrak, gero kristauak bezala, lekukoan eragina izan zuen, euskal jeinu edo erritu batzuk bere moldeetan aurkeztuz. Honen adibide izan daitezke **lamia** edo **laminak**. Euskal Herrian andre-gorputza dute, baina oilo-, ahate- edo ahuntz-hankak. Leizeetan edo sarriago ur-ertzean bizi dira: erreka, iturri eta putzuetan. Urrezko orrazi batez orrazten agertzen dira maiz. Ederrak direnez, gizonezkoak batzuetan maitemindu egiten dira lamiekin. Sarri bahitzen dituzte gizakiak, baina behin baino gehiagotan gizakiek ere bahitzen dituzte lamiak. Nahiz eta bertoko pertsonaia izan, izena behintzat grekoari zor dio latinaren bitartez (bietan da *lamia*). Baina hala Grezian nola Erroman, Euskal Herrian ez bezala, emazteki izugarria zen eta umeak beldurtzeko erabiltzen zen honen izena, haurrak lapurtu eta jan ohi zituela esanez.

Ez da erraza, ordea, hain ugaria eta anitza den ondare batean, elementu bakoitzaren kronologia edo jatorria bereiztea. Horregatik, mitologia grekolatindarra eta euskal mitologia konparatzean, zuhurragoa da elementu mitologikoetan diren elkarguneak aipatzea, zein den zordun eta zein hartzekodun, edo halakorik badenentz erabakitzen jardun gabe. Askotan euskal mitologian biltzen diren elezaharrak ezagunak dira ez soilik mitologia grekolatindarrean, baizik eta baita herri iberikoetan, galiarretan, germanikoetan edo nordikoetan. Euskal elezaharra, halakoetan, guztien gai baten bertsioa dela esan daiteke. Adibide on bat izan liteke **Tartalo** edo **Tortorena**. Bekokian begi bakarra duen erraldoi gizajale indartsua da. Artzaina da eta kobazulo batean bizi da artaldearekin. Gizonak sartzen dira haren kobazuloan; bat edo batzuk jan egiten ditu eta baten batek ihes egitea lortzen du. Pasarte batzuk ez dira aldaera guztietan agertzen: afaria, Tartaloren lotaldia, Tartalo haga batez itsutzea, ihesa eragozteko erantzuna... Kontakizunaren euskal aldaera gehienetan hil egiten da Tartalo. Homeroren *Odisea* poema epikoari esker ezagutzen dugun **Polifemo ziklopearekin** lotu da pertsonaia hau, baina Europa, Asia eta Afrikako anitz lekutan ezagutzen dira mito honen aldaerak eta ez dakigu jatorriz nongoa den.

---

13. Honi buruz ikus Larrañaga 1988: 102-106 eta 314-323.

## Bibliografía

- Aghion, I., Barbillon, C., Lissarrague, F., (1997): *Héroes y dioses de la Antigüedad*, Madril, Alianza Editorial (1. arg. jat. 1994).
- Agirre, J., Bilbao, G., (argitaratzeaz): "Herkules: Tebasetik Tolosara Hollywoodetik igarogabe", *Uztaro*.
- Apolodoro, *Biblioteca*, sarrera J. Arce, itz. M. Rodríguez de Sepúlveda, Madril, Gredos, 1985.
- Bauzá, H. (1993): *El imaginario clásico. Edad de oro, Utopía y Arcadia*, Universidad de Santiago de Compostela.
- Barandiaran, J. M., (1972): *Diccionario ilustrado de la mitología vasca*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- , (1984): *Diccionario de mitología vasca*, Lizarra, Txertoa.
- Bermejo, J. C., (1979): *Introducción a la sociología del mito griego*, Madril, Akal.
- Bermejo, J. C., González García, F.J., Reboreda Morillo, S., (1996): *Los orígenes de la mitología griega*, Madril, Akal.
- Bettini, M., (1987): "Bruto lo sciocco", in AA.VV., *Il protagonismo nella storiografia classica*, Genoa, 71-120.
- Bonnefoy, I., (1996, 1997): *Diccionario de las Mitologías*, II. lib. *Grecia*, III. lib. *Roma*, Bartzelona, Destino (1. arg. jat. 1981).
- Brelich, A., (1958): *I Greci e gli dei*, Napoli, Lignori.
- Bremmer, J. N., (1987): *Interpretations of Greek Mythology*, Londres-Sidney.
- Bremmer, J. N.- Horsfall, N. M., (1987): *Roman Myth and Mythography*, Londres, BICS.
- Burns, L., (1993): *Los Mitos Griegos*, Madril.
- Buxton, R. (1994): *Imaginary Greece. The Contexts of Mythology*, Cambridge University Press.
- Campbell, J., (1973): *El héroe de las mil caras*, Mexiko, FCE.
- , (1993): *Los mitos*, Bartzelona, Kairós.
- Contreras, J., Ramos G. eta Rico Y., (1992): *Diccionario de la religión romana*, Madril, Ediciones Clásicas.
- Dodds, R., (1985): *Los griegos y lo irracional*, Madril, Alianza Ed.
- Donaldson, I., (1982): *The Rapes of Lucretia. A Myth and its transformations*, Oxford University Press.
- Dowden, K., (1992): *The uses of Greek Mythology*, Londres & New York, Routledge.
- Dumézil, G., (1970): *Los dioses de los indoeuropeos*, Bartzelona, Seix Barral.
- , (1977 [1. arg. 1970]): *Mito y Epopeya I*, Bartzelona, Seix Barral.
- , (1996): *Mito y Epopeya III. Historias romanas*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica (1. arg. jat. 1973).
- Edmunds, L., (1990): *Approaches to Greek Myth*, Baltimore & Londres, Johns Hopkins University Press.
- Eliade, M. (1985): *Mito y realidad*, Bartzelona, Labor.
- Falcón Martínez, C., Fernández-Galiano, E., López Melero, R., (1980): *Diccionario de la Mitología Clásica*, Madril, Alianza Editorial.
- Gallardo López, D., (1995): *Manual de Mitología Clásica*, Madril, Ediciones Clásicas.
- García Gual, C., (1979): *El mito de Prometeo*, Iruñea, Libros Hiperión.
- , (1983): *Mitos, héroes y viajes*, Madril, Taurus.
- , (1987a): *La Mitología*, Bartzelona.
- , (1987b): "Introducción" in Apolonio de Rodas, *El viaje de los los Argonautas*, Madril, Alianza Editorial.
- , (1992): *Introducción a la Mitología Clásica*, Madril, Alianza Editorial.
- , (1997): *Diccionario de Mitos*, Bartzelona, Destino.
- García López, J. L., (1975): *La religión griega*, Madril, Istmo.
- Garndner, J. F., (1995): *Mitos romanos*, Madril, Akal.

- Giltza-Edebé, (1997): *Kultura klasikoa. DBH 3*, Bartzelona.
- Giltza-Edebé, (1998): *Kultura klasikoa. DBH 4*, Bartzelona.
- Grant, M., (1971): *The Roman Myths*, Londres.
- Graves, R., (1985): *Los mitos griegos*, Madril, Alianza Editorial.
- Grimal, P., (1989): *La mitología griega*, Bartzelona, Paidós.
- , (1989 [1. arg. jat. 1963]): *Diccionario de la Mitología Clásica*, Bartzelona, Paidós.
- Grupo Tempe, (1998): *Los dioses del Olimpo*, Madril, Alianza Editorial.
- Hernández Lucas, M. T., arg., (1990): *Mitología. Teoría y práctica docente*, Madril, Ediciones Clásicas.
- Kirk, G. S., (1973): *El mito, su significado y funciones*, Bartzelona.
- Larrañaga, K., (1988): *Euskal Herria Antzinatean. Materiale eta agiriak*, Donostia, Kriselu - UNED Bergara.
- Liou-Gille, B., (1980): *Mythes heroïques romains. Les fondateurs*, París, Belles Lettres.
- Marco Simón, F., (1987): *Illud tempus. Mito y Cosmogonía en la Antigüedad*, Zaragoza.
- Martin, R. (arg.), (1996): *Mitología griega y romana*, Madril, Alianza Editorial.
- Moormann, E. M. - Uitterhoeve, W., (1997): *De Acteón a Zeus. Temas sobre la mitología clásica en la literatura, la música, las artes plásticas y el teatro*, Madril, Akal.
- Ogilvie, R. M., (1995 [1. ed. jat. 1969]): *Los romanos y sus dioses*, Madril, Alianza Editorial.
- Otto, W., (1973): *Los dioses de Grecia*, Editorial Universitaria de Buenos Aires.
- Poucet, J., (1985): *Les origins de Rome. Tradition et histoire*, Brusela, Publications des Facultés univ. Saint-Louis.
- Ruiz de Elvira, A., (1977 [2 arg.]): *Mitología Clásica*, Madril, Gredos.
- Scheid, J., (1991): *La religión romana*, Madril, Ediciones Clásicas.
- Sissa, D. - Detienne, M., (1990): *La vida cotidiana de los dioses griegos*, Madril, Temas de hoy.
- Sterckx, C., (1993): "Les septis rois de Rome et la sociogonie indo-européenne", *Latomus*, 51.
- Vernant, J. P., (1981): *Mithe et société en Grece ancienne*, París, F. Maspiero ed.
- , (1983): *Mito y pensamiento en la Grecia Antigua*, Bartzelona, Ariel.
- Veyne, P., (1987): *¿Creyeron los griegos en sus mitos?*, Bartzelona, Granica ed.
- Wiseman, T. P., (1995): *Remus. A Roman Myth*, Cambridge University Press.